



LANGILEEK ENPRESETAN PARTE-HARTZEAREN ALDEKO KONPROMISOA AZALDU DU GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK BRUSELAN

Joan den urriaren 18an, **Europako enpresetan langileen parte-hartze finantzarioaren Astean** parte hartu zuen Oscar Usetxi Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapen Zuzendariak Bruselan; Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak antolatu zuen astea Pro-EFP proiektuaren baitan.

Asteak iraun duen hiru egunetan barrena, langileek enpresetan parte-hartze finantzarioa izatearen inguruko esperientziak eta hausnarketak partekatu dituzte pertsona adituek, ordezkari europarrek (Enplegu, Hezkuntza, Industria...), zein sindikatu, unibertsitate, enpresa-erakunde eta tokiko gobernuetako ordezkariak.

Erakunde sozioekonomikoen eredu bat garatzearen alde foru erakundeak duen konpromisoa azaldu zuen Oscar Usetxik bere hitzaldian, hain zuzen ere, pertsona protagonista duena eta enpresa-proiektuaren nagusitasuna bere gain hartzea ahalbidetzen diona.

Alor honetan, Foru Aldundiaren xedea erakundeak osatzen dituzten pertsonak zein taldeek berrikuntzan eta konpromiso pertsonal, profesional eta sozialean oinarritutako helburu eta jardura-kulturen inguruan lan egiteko aukerak eskaintzen dituzten erakundeak sustatzea da.

Horretarako, duela hainbat urte Foru Aldundia hainbat jardura sustatzen ari da, lurraldeko pertsonak esparru pertsonal, profesional zein sozialean hainbat balore oinarri hartuta garatu daitezken, hala nola, erantzukizun soziala, taldean lan egitea, gaitasun kritikoa, ekimena izatea, lidergoa edo azterketa hausnarketarako gaitasuna. Hauetako zenbait jardura Europako Fondo Sozialaren (%50ko kofinantzaketa-laguntza izan dute, "EFS-k zure etorkizunean inbertitzen du" lelopean.

Era berean, zuzendariak jakinarazi duenez, langileek kudeaketa-arloetan, erabakiak hartzean zein kapitalean eta enpresen emaitzetan parte hartzean oinarritutako enpresa-esperientziak martxan jartzen laguntzeko politika aktibo bat zabaltzen ari da foru aldundia.



European Economic and Social Committee

The Week of Employee Financial Participation



Mon. 17 Oct.	Tue. 18 Oct.	Wed. 19 Oct.
9 ³⁰ am - 5 ³⁰ pm	9 am - 5 ³⁰ pm	9 am - 5 ³⁰ pm
JDE 62	JDE 62	VM3
Jacques Delors	Jacques Delors	Van Marlant, 2
active: EN, DE, ES + passive: FR, PL	active: EN, FR, IT + passive: DE, ES	active: EN, DE, IT + passive: FR, PL
<ul style="list-style-type: none">Key Findings in the EU27Business SuccessionThe European ESOP	<ul style="list-style-type: none">Services of General InterestEuropean Social ModelEFP and Young Citizens	<ul style="list-style-type: none">Better Corporate GovernanceBuilding Block ApproachEffective Tax Rates
Reception - 5 ³⁰ pm Atrium 6 - 6 th floor		

With the financial support of the European Commission and in partnership with the European Economic and Social Committee





Informazio-oharra
2011ko urria



Eta helburu hori hartuta, hainbat jardura gauzatzen ari dira, hala nola, zerga-tratamendu bereizi bati begirako proposamen zehatzak taxutzea, enpresetan parte-hartzea sustatuko duten web-aplikazioak/-tresnak garatzea eta irakaspenak eta adibideak jasotzea ahalbidetuko duten "jardunbide egokiak" nazioartean identifikatzea, ondoren Gipuzkoako enpresetara ekartze aldera. Halaber, alor honetan herritarrak eta enpresak sentibilizatu eta hedatzeko ahaleginak indartu behar direla jakitun izanda, diziplina anitzeko lantaldeak bultzatzen ari dira. Horietan, eragile sozioekonomikoak eta hezkuntzaren eta ikerketaren arlokoak Gipuzkoako ehun sozioekonomikoari balioa eman eta berritzearen inguruan lanean ari da.

Ildo horretatik, beste eremu geografiko batzuetako zein Gipuzkoako enpresetako esperientziak ezagutarazteko zenbait sentibilizazio kanpaina antolatu dira. Jardura horiek enpresa-erakunde, teknologia-zentro, eskualdeko Garapen Agentzia, Berrikuntza Agentzia, Gipuzkoako gizarte-ekimena eta Lurraldean jardura garatzen duen 100 enpresa pribatu ingururekin elkarlanean garatu dira.

Oscar Usetxi Gipuzkoako Foru Aldundiak pertsonetikiko eta lurraldearekiko duen konpromisoa agerian utzi du, eta baita gizarte berri bidezkoagoa eta kohesionatuagoa ahalbidetuko duten ekimenak garatzearen aldeko konpromisoa ere; gizarte horrek, beste hainbat alderdiren artean, partaidetza handiagoa duten enpresen antolaketa-ereduetan oinarritutako ekonomia lehiakorragoa eta jasangarriagoa izan behar du, eta horretarako, konpromisoan eta berrikuntzan oinarrituz. Eta konpromiso hau gauzatu nahian. Foru Aldundiak Europako Batzordearen laguntzarekin lan egitea aditzera eman du, Europa Batasunak langileen partehartzeko sustapen politikak garatzeko helburuei lagunduz.

Informazio gehiago:

Bruselan egindako Europako enpresetan langileen parte-hartze finantzarioaren Astea.

http://www.intercentar.de/fileadmin/files/Konferenzprogramme/BXL_17-19_October_2011/Draft_Programme_Pro-EFP_Conference_17-19_Oct_BXL.pdf

Implications of participation, a reflection from Diputación Foral de Gipuzkoa (Oscar Usetxi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapen Zuzendariaren aurkezpena)

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/documentos/Implication%20of%20participation%20in%20Gipuzkoa.pdf>